

Erradikaltasun eta ñabardura beharrez



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Azken hilabete hauetan, hedabide frantsesetan maiz erabili da “erradikaltasun” hitza: frantses lehendakari-hauteskundeetako kanpainan, eskuin-muturreko kandidatuek errazki baliatu dute “estremismo” terminoaren partez; ezkertiarrek, berriaz, “erradikaltasuna” bere egin dute ere bai, adierazteko garaia dela aldaketa iraultzaileak egiteko.

Ezkertiar gehienek artean bereziki, “erradikaltasuna” baikorki konnotatua da egun, ez da gehiago minoritate bortitz baten ekintza gaitzesgarriekin lotzen. Badirudi ez dela gehiago ongi ikusia moderatua, erreformista, mailaz mailakoaren aldekoa izatea. Nola ez: denok ohartuak gara zailtasun handi handitan gabiltzala: ingurumena suntsituz gizakiaren biziraupen kolektiboa guhaurrek ezarri dugu kolokan, mundu osoan gaina hartua duen sistema neoliberalak norbanakoak lehertzen ditu, harremanak urratzen, eta galdu ditugu esperantza ematen zuten ideologia zaharrak. Biziki presazkoak dira beraz bide erradikalak, begi bistakoa delako ez dugula gehiago denborarik hautsimautsiendako. Alor guztiak erradikalizatu dira azken hamarkada hauetan: feminismoa, post-kolonialismoa, ekologia...

beharrezkoa iruditzen baitzaigu errotik uzkalte zuzengabetasun soziala, imperialismoa, kapitalismo handia, kutsadura masiboa eta ekosistemen zapalketa. Hori baita gaurko “erradikaltasun” baikorra, Marxen erranaren ildotik: gauzak errotik hartzea eta eraldatzea.

Bizkitartean, erradikalizatzeko horiek lanjerosak izan daitezke gizabanakoen eta giza taldeen arteko harremanak oztopatzen badituzte. Ikusi dugu frantses lehendakari-hauteskundeetako kanpainan hautagaien arteko eztabaidak ezinezkoak zirela: kandidatuak egoskor jartzen ziren, hitz bortitzak edo umiliagarriak erabiltzen, erakusteko ezin zuketela bata bestearekin eleketan aritu, jendetasunezko kode soilak enplegatuz. Jendartean ere bai, eztabaidatzeko gogoia eta gaitasuna murriztu dira: gai batzuk tabu daude (COVID-19ak eragin osagarri krisi kudeaketa, adibidez); bakoitzak nahiago du bere ideiekin egon, bere ideiak partekatzen dituen taldearekin bakarrik harremanetan gelditu, eta gainerateko jendearekin ez gurutzatu. Orokorrean, postura erradikalek funtsa gorrotoan daukate: patriarkaltasunaren eta sexismoaren herran, neoliberalismoaren aiherkundearen, kolonialismoaren arbuioan. Zuzentasunak

bultzatuak izan arren, arriskua da ideologia erradikal garaikideek lerraraz gaitzabela autoritarismo berritara, ez balin badiote baliorik ematen begirunezko eztabaidari.

Hain zuzen ere, “erradikaltasunaz” bestaldez kontzeptu bat sartua da arunt hedabide frantsesetan, bai eta goi-mailako literatura-ikerketan unibertsitarioan ere: “ñabarduren” beharra. Definizio lausoko nozioa da. Horren sostengatzaile batzuek Habermas filosofoaren kontsentsuaren kontzeptuarekin lotzen dute, zentzu neoliberalan; beste batzuek “care” kontzeptu itsu eta patetikoarekin (ikus 2022ko maiatzaren *Le Monde Diplomatique* eta Parisen 2021eko urte hondarrean iragan den seminario unibertsitarioa: “Caring lit”). Alta, “ñabarduren” aldarrikapen horietatik ez daiteke aterabiderik heldu: bizi ditugun dramak ez dituzte azaleko kontsentsu minimo eta epelek tratatuko.

Hausnartzen nagoela hori guziaz, pentsatzen dut ideologia erradikalen behar gorria dugula, zuzengabekeriak salatzeke, baina lortu behar dugula gehiago, zintzokiago eta hobeki eztabaidatzen, norik gurea ukatu gabe elkarrekin salbatzeko geure burua, salbamen kolektiboa delako desiragarria. ●